

IRUÑA OKA

210

Kontrataziorako pizgarrien udal ordenantza aldatzearen behin betiko onarpena.

Erreklamaziorik ez da aurkeztu langileen kontrataziorako pizgarriak eskuratzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantzaren hasierako onarpenaren aurka (ALHAOren 127 zenbakian, 2013ko azaroaren 8an, argitaratuta). Ondorioz, hura behin betiko onartuta geratzen da eta ondoren argitara ematen da haren testu osoa, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan aurreikusten dituen ondorioetarako:

Bertako herritarren enplegurako Iruña Oka programa izenekoaren barruan langileen kontrataziorako pizgarriak eskuratzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza**1. artikulua.- Xedea.**

Ordenantza honen xedea ondokoa da: bertako herritarren enplegurako Iruña Oka programa izenekoaren barruan langileen kontrataziorako pizgarriak eskuratu nahi dituzten pertsona edo enpresek bete behar dituzten baldintzak eta betekizunak finkatzea.

2. artikulua.- Hartzaileak.

Kontrataziorako pizgarriak eskuratu ahal izango dituzte Iruña Okako udalerriaren barruan kokaturik dauden eta bere jarduera bertan egiten duten pertsona, enpresa, sukurtsal edo erakundeak.

3. artikulua.- Kontratutako langileak.

Pizgarrietarako eskubidea izateko, kontratatutako langileak Iruña Okako udalerrian erroldaturik egon beharko dira gutxienez bi urte lehenagotik.

4. artikulua.- Kontratu motak.

Pizgarrietarako eskubidea emango duten lan kontratuak lan legerian ezarritakoak izango dira, beren mota desberdinetan, beraietan gerta daitezkeen eraberritzeak eta aldakuntzak gorabehera.

5. artikulua.- Baldintza orokorrak.

Pizgarriak eskuratu nahi dituzten partikularrak, enpresak edo erakundeak:

a) Ezin daitezke egon Herri Administrazioen Kontratuei buruzko 1995ko maiatzaren 18ko Legearen 20. artikuluan ezartzen diren kontratatzeke debekuetako ezeinetan ere sartuta (BOEren 119 zengakia, 1995eko maiatzaren 19koa).

b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon beharko dira, udalerrri mailan.

c) Eta, era berezian, egunean egon beharko dira Iruña Okako Udalarekin dituzten zerga eginbeharretan eta beste edozein motatako eginbeharretan.

6. artikulua.- Pizgarrien zenbatekoa.

Pizgarrien zenbatekoa 1.500 eurotan finkatzen da (edo Udalaren aurrekontuaren arabera dagokion proportziozko kopuruan), baldin eta lanik gabeko langilearekin egindako kontratua mugagabekoa bada.

7. artikulua.- Pizgarriak ordaintzea.

Pizgarrien ordaintzea urtealdi bakoitzaren amaieran egingo da eta, aurkeztutako eskaerak aztertu eta gero, eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoa aurrekontuetan jasotakoa baino handiagoa izatekotan, emandako laguntzetan proportziozko murrizketa egingo da.

8. artikulua.- Kontratuak ez betetzea.

Lan arloko agintari eskudunak edo epai irmo baten bidez aitor-tutako kaleratzeetan, ondoko modu honetan jokatu da:

.- Bidezko kaleratzea: enpresaburuak eskubidea izango du pizgarri moduan ezarritako kopuruaren erdia kobratzeko.

.- Bidegabeko kaleratzea: enpresaburuak itzuli egin beharko ditu jasotako kopuruak, beste ezer kobratzeko eskubiderik izan gabe, eta, hala egin ezean, legez ezarrita dauden kobratzeko prozedura eta gauzatzeko bideak erabiliko dira, premiamendu bidea barne delarik.

IRUÑA DE OCA

210

Aprobación definitiva modificación ordenanza municipal de incentivos a la contratación.

No habiéndose presentado reclamaciones contra la aprobación inicial de la modificación de la ordenanza municipal reguladora de las condiciones para acceder a incentivos por la contratación de personal, publicada en el BOTHA número 127, de 8 de noviembre de 2013, la misma queda aprobada definitivamente, publicándose a continuación el texto íntegro de la misma a los efectos previstos en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local:

Ordenanza municipal reguladora de las condiciones para acceder a incentivos por la contratación de personal del denominado programa Iruña de Oca por el empleo de sus ciudadanos**Artículo 1.- Objeto.**

La presente ordenanza tiene por objeto establecer las condiciones y requisitos que deben cumplir aquellas personas o empresas que pretendan acceder a los incentivos por contratación de personal dentro del programa denominado Iruña de Oca por el empleo de sus ciudadanos.

Artículo 2.- Destinatarios.

Podrán acceder a los incentivos por contratación, las personas, empresas o sucursales de las mismas y organismos que radiquen y ejerzan su actividad dentro del término municipal de Iruña de Oca.

Artículo 3.- Personal contratado.

Para tener derecho a los incentivos, el personal contratado deberá estar empadronado en el municipio de Iruña de Oca con dos años de antigüedad.

Artículo 4.- Tipos de contratos.

Los contratos de trabajo que darán derecho a los incentivos serán los establecidos en la legislación laboral, en sus distintas modalidades, con independencia de las reformas y modificaciones que se puedan producir en los mismos.

Artículo 5.- Condiciones generales.

Los particulares, empresas u organismos que pretendan acceder a los incentivos:

a) No deberán estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar establecidas en el artículo 20 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas de 18 de mayo de 1995. (BOE nº 119, de 19 de mayo de 1995)

b) Deberán estar dados de alta, a nivel municipal, en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

c) Y, especialmente, estarán al corriente de sus obligaciones fiscales y de cualquier otro tipo con el Ayuntamiento de Iruña de Oca.

Artículo 6.- Cuantía de los incentivos.

La cuantía de los incentivos se establece en 1.500 euros (o la cantidad proporcional que corresponda en función del presupuesto municipal), siempre que el contrato efectuado con el trabajador desempleado tenga carácter indefinido.

Artículo 7.- Abono de los incentivos.

El abono de los incentivos se realizará al final de cada ejercicio anual y, en caso de que, una vez examinadas las solicitudes presentadas, la cantidad a subvencionar fuese superior a la presupuestada, se hará una disminución proporcional a las ayudas concedidas.

Artículo 8.- Incumplimiento de los contratos.

En los supuestos de despido, declarados por la autoridad laboral competente o por sentencia firme, se procederá de la siguiente forma:

.- Despido procedente: el empresario tendrá derecho al cobro de la mitad de la cantidad fijada como incentivo.

.- Despido improcedente: el empresario deberá proceder a la devolución de las cantidades percibidas, sin derecho a ningún otro cobro, y en caso contrario se utilizarán los procedimientos de cobro y medios de ejecución legalmente establecidos, incluida la vía de apremio.

Kontratua amaitzekotan, dela elkarrekiko adostasunez, dela kale-
ratzea ez den beste edozein arrazoirengatik, hainbanaketa egingo
da lan denboraren arabera, pizgarria emateko oinarri bezala hartu
zenarekin alderatuta.

9. artikulua.- Prozedura.

Pizgarrien eskaera Iruña Okako Udalaren Idazkaritzan aurkeztu
beharko da, ondoko agiri hauek erantsita:

- Ordenantza honetako 2., 3. eta 5. artikuluetan ezarritako
baldintza eta betebeharrak betetzen direlako frogagiriak.

- Lan kontratuak, Gizarte Segurantzako alta agiriak edo, hala
dagokionean, baja agiriak, lan arloko agintaritzaren ebazpenak edo epai
irmoa, kaleratze kasuetan.

Eskaerak aurkeztuta, betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen
diren aztertuko da eta onarpena edo ezezkoa emango zaio Udalak
egiten duen hurrengo osoko bilkuran.

Eskaerari ezezkoa ematekotan, hura arrazoitua izango da, zein
baldintza edo betebeharrak ez den betetzen adieraziz.

10. artikulua.- Ordenantza honen indarraldia.

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko
da indarrean.

11. artikulua.- Suposamendu berezia.

Ordenantza honetan araututako kasuetan, udalerriko biztanlea
izateaz gainera bera langabetua bada eta produkzio instalazioen
handitzea, egokitzea edo berriztatzea egiten bada, jarduera horrek, berez
dakarren kostu edo inbertsioaz gainera, titularrak Udalarari diru kopuruak
ordaindu beharra sortzen duelarik adierazitako jarduerekin lotutako hiri-
gintza kargen kontzeptuan, Udalaren kutxetan sartu beharreko zenba-
tekoetan zuzeneko konpentsazioa edo deskontua eginez ordaindu
ahal izango da dirulaguntza, gehienez ere zenbateko horien ehuneko
30eraino (korrituak barne hartu gabe).

Iruña Oka, 2014ko urtarrilaren 14a.- Alkate-lehendakaria, JOSÉ
JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

IRUÑA OKA

211

Behin betiko onartzea 2014ko aurrekontu orokorra

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2014ko aurrekontu
orokorrari hasierako onarpena ematen dion erabakiaren aurka, zeina
2013ko abenduaren 23ko ALHAOn (147. zk.) argitaratu baitzen. Beraz,
otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko
toki erakundeen aurrekontuenak, 15 artikuluan xedatutakoarekin bat
etorri, aurrekontu hori behin betiko onartu da. Hona hemen kapi-
tuluka laburtuta:

Gastuen egoera

I.- Langile gastuak:	628.660,49 euro
II.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea:	1.434.236,03 euro
III.- Finantza gastuak:	150,25 euro
IV.- Transferentzia arruntak:	419.261,10 euro
VI.- Inbertsio errealak:	157.845,04 euro
VII.- Kapital transferentziak:	260.418,74 euro
VIII.- Finantza-aktiboak:	31.000,00 euro
IX.- Finantza-pasiboak:	0,00 euro
Gastuen egoera, guztira:	2.931.571,65 euro

Diru sarreraren egoera

I.- Zuzeneko zergak	1.267.075,80 euro
II.- Zeharkako zergak	53.250,00 euro
III.- Tasak eta bestelako diru sarrerak	228.682,81 euro
IV.- Transferentzia arruntak	1.181.544,44 euro
V.- Ondare bidezko diru sarrerak	36.100,00 euro
VI.- Inbertsio errealak besterentzea	70.937,00 euro

En los supuestos de cesación del contrato bien por mutuo
acuerdo, bien por cualquier otra circunstancia distinta del despido,
se procederá a efectuar un prorrateo respecto del tiempo de trabajo
en relación con el que sirvió de base para la concesión del incentivo.

Artículo 9.- Procedimiento.

La solicitud de incentivos deberá presentarse en la Secretaría del
Ayuntamiento de Iruña de Oca, acompañando la siguiente docu-
mentación:

- Justificación de cumplimiento de las condiciones y requisitos
establecidos en los artículos 2, 3 y 5 de la presente ordenanza.

- Contratos de trabajo, partes de alta en la Seguridad Social o,
en su caso, partes de baja, resoluciones de la autoridad laboral o
sentencia firme en los supuestos de despido.

Presentada la solicitud, se efectuará el estudio del cumplimiento
de todos los requisitos y condiciones y será aprobada o denegada en
el siguiente pleno que celebre el Ayuntamiento.

En el supuesto de denegarse la solicitud, la misma será motivada,
indicando qué requisitos o condiciones no se cumplen.

Artículo 10.- Vigencia de la presente ordenanza.

La presente ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publi-
cación en el BOTHA.

Artículo 11.- Supuesto especial.

En los supuestos regulados por la presente ordenanza en que,
además de la contratación de vecino del municipio, el mismo tenga
el carácter de desempleado y se proceda a una ampliación, adecuación
o renovación de las instalaciones productivas que, además del coste
o inversión inherente de dicha actuación, genere cantidades a abonar
por el titular de la actividad y a favor del Ayuntamiento en el concepto
de cargas urbanísticas vinculadas a las citadas actuaciones, la
subvención podrá efectuarse mediante la compensación directa, o
descuento, en las cantidades a ingresar en las arcas municipales,
con un máximo del 30 por ciento de las mismas (sin incluir intereses)

En Iruña de Oca, a 14 de enero de 2014.- El alcalde-presidente,
JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

IRUÑA DE OCA

211

Aprobación definitiva del presupuesto general 2014

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 de la Norma
Foral 3/2004 de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales
del Territorio Histórico de Álava, y no habiéndose presentado recla-
mación alguna contra el acuerdo de aprobación inicial del Presupuesto
General 2014 publicado en el BOTHA número 147 de fecha 23 de
diciembre de 2013 se considera definitivamente aprobado, con el
siguiente resumen por capítulos:

Estado de Gastos

I.- Gastos de personal:	628.660,49 euros
II.- Compra de bienes corrientes y servicios:	1.434.236,03 euros
III.- Gastos financieros:	150,25 euros
IV.- Transferencias corrientes:	419.261,10 euros
VI.- Inversiones reales:	157.845,04 euros
VII.- Transferencias de capital:	260.418,74 euros
VIII.- Activos financieros:	31.000,00 euros
IX.- Pasivos financieros:	0,00 euros
Total Estado de Gastos:	2.931.571,65 euros

Estado de ingresos

I.- Impuestos Directos:	1.267.075,80 euros
II.- Impuestos Indirectos:	53.250,00 euros
III.- Tasas y otros ingresos:	228.682,81 euros
IV.- Transferencias corrientes:	1.181.544,44 euros
V.- Ingresos patrimoniales:	36.100,00 euros
VI.- Enajenación de inversiones reales:	70.937,00 euros